

II. GRAMATIKA

BALDINTZA I: AURKEZPENA

Lau baldintza-mota daude euskaraz:

1. Indikatiboarekin:

- a. baldintza erreala
- b. baldintza ebentuala

2. Alegiazko formekin:

- a. baldintza irreala
- b. baldintza hipotetikoa

A. Indikatiboarekin: (BALDIN) BA + INDIKATIBOA

<i>Mikel etorri bada,...</i>	(si ha venido)
<i>Mikel etortzen bada,...</i>	(si viene)
<i>Pelikula ikusi baduzu,...</i>	(si has visto)
<i>Pelikula ikusten baduzu,...</i>	(si ves)

Baldintza hau bi eratakoa izan daiteke:

✓ **ERREALA**: baldintza 'gertatua' bezala ematen du.

Adibidez:

- ⇒ *Hara, pelikula ikusi baduzu, nora joango gara?*
Dirua eman badio, behar zuelako izan da.

✓ **EBENTUALA**: baldintza 'gertagarria' da, beharbada gertatu da edo gertatuko da.

Adibidez:

- ⇒ *Pelikula ikusi baduzu, jakingo duzu nolakoa den.*
Dirua eman badio, pozik egongo da.

Normalean ondorioak —hau da, bigarren parteak— adierazten du baldintza errealtzat ala ebentualtzat hartzen den. Batzuetan, hala ere, ambigua izaten da esaldia.

La condición se da a veces como sucedida y otras veces como eventual, es decir, como algo que puede suceder o haber sucedido. En algunas ocasiones la frase puede prestarse a ambas interpretaciones.

Adibidez: *Gaur etorri bada, bihar ere etorriko da.*

Esa condición puede entenderse como real ('hoy ha venido y si hoy ha venido, mañana también vendrá') o como eventual ('si resulta que es cierto que hoy ha venido, también mañana vendrá').

B. Alegiazko formekin: BALITZ, BALU...

<i>Mikel etorri balitz,...</i>	(si hubiera venido)
<i>Mikel etorriko balitz,...</i>	(si viniera)
<i>Pelikula ikusi bazenu,...</i>	(si hubieras visto)
<i>Pelikula ikusiko bazenu,...</i>	(si vieras)
<i>Ikusi banindu,...</i>	(si me hubiera visto)
<i>Ikusiko banindu,...</i>	(si me viera)

Baldintza hau ere bi eratakoa izan daiteke:

✓ **IRREALA**: aditz nagusia partizipioan dago eta baldintza 'gertatu ez dela' adierazten du; ondorioa *izango zen* motakoa da normalean:

Adibidez:

⇒ *Ikusi banindu, lagunduko zidan.*
(si me hubiera visto, me habría ayudado)
Dirua eman balio, pozik hartuko zuen.
(si le hubiera dado... lo habría cogido)

✓ **HIPOTETIKOA**: aditz nagusia *-ko* gisakoa da eta ondorioa *-ke* motakoa; baldintza honek orain-gerora begiratzen du eta hipotesi hutsa adierazten du:

Adibidez:

⇒ *Ikusiko banindu, lagunduko lidake.*
(si me viera, me ayudaría)
Dirua emango balio, pozik hartuko luke.
(si le diera... lo cogería)

El primer tipo de estas condiciones mira al pasado y da a entender que algo no ha sucedido, pero si hubiera sucedido... El segundo mira al futuro y plantea la condición como una hipótesis: si sucediera...

C. BALDINTZA EGITEKO BESTE EGITURA EDO ESAMOLDE BATZUK:

<i>Nahi izanez gero, etor zaitezke gurekin.</i>	(si quieres, de quererlo)
<i>Ez ikastekotan, hobeto ez matrikulatzea.</i>	(de no aprender)
<i>Hori jakitera, etxean geratuko nintzen.</i>	(de haberlo sabido)



BALDINTZA II: INDIKATIBOKO BALDINTZAREN ERREPASOA

Esan bezala, indikatiboarekin baldintza erreala eta ebentuala egiten dira.

✓ Hiru aspektuak erabiltzen dira:

a. **Burutua:** *Etorri bada, libre zegoelako izan da.* (erreala)
Etorri bada, ikusiko dut. (ebentuala)

b. **Burutugabea:**
Etortzen bada, komeni zaiolako da. (erreala)
Etortzen bada, ikusiko dut. (ebentuala)

c. **Geroko aspektua** gutxi erabiltzen da; 'obligazio' kutsua du. Ondorioan behar agertzen da maiz:

Sartuko bagara, atea ireki beharko duzu.

('gu sartzeko, sartu ahal izateko..., zuk X behar duzu')

Trena hartu behar du, garaiz iritsiko bada.

('garaiz iristeko..., X behar du')

✓ Zenbaitetan *baldin* partikula gehitzen da, aditz jokatuaren ezkerrean edo aurrerago. Esanahia ez da aldatzen:

Etorri baldin bada,... (si ha venido)

Baldin etorri bada,...

Baldin Mikel etorri bada,...

Partikula hau aditz sintetikoekin erabiltzen da maiz:

Berandu baldin badao,...

Gurekin baldin bazatoz,...



ARIKETAK

1. **BETE HUTSUNEAK.** *Publizitate-testu hauetan indikatiboko baldintzak falta dira. Bete itzazu zuk.*

- a. Moda berriena zuretzat! Gaztea eta gazte jantzi nahi, etorri guregana. Nahi duzun guztia aurkituko duzu. Gazteak janzten espezialistak gara.
- b. SIBERIA hozkailua, zure hozkailua! Erosi eta eraman lasai etxera: gustatzen ez, dirua itzuliko dizugu!
- c. Erosi orain zeure autoa eta ordaindu gero: nahi, 12 epetan eta nahiago baduzu, 18tan. Aukera hoberik ba al dago beste inon? Baldin, joan eta erosi han!
- d. BIKAIN garajea. Zure autoa hondatua baldin ekarri gurera eta ordu gutxitan konponduko dugu. Eta behar, bitartean beste auto bat utziko dizugu.

2. **EGOKIENA AUKERATU.**

Adibidez:

► Berandu, *kalean geratu beharko duzue.*
• iritsi bazineten • bazuadete • **iristen bazarete** • bazen

1. Garestia, erosiko dut.
• ez banaiz • ez bada • ez badator • izango bada
2. Arin ibili behar du, garaiz
- iristen bada • iritsi bada • iritsiko bada • iritsi bazen
3. Ikusten, etxera eramango zaitu.
• bazaitu • bada • bagara • banintzen
4. Maite, lagunduko didazu.
• badu • bada • bazaitut • banauzu
5. Nire semea, esaiozue etortzeko berehala.
• ikusten baduzu • ikusi baduzu • ikusi baduzue • ikusten baduzue
6. Futbola gustatzen, sarrera bat emango dizut.
• bazait • banaiz • bazaizu • baduzu
7. hemen erre, kanpora joango naiz.
• Ezin da • Ezin badu • Ezin zen • Ezin bada
8., eros ezazu egunkaria.
• Ahal bada • Ahal baduzu • Ahal bazara • Ahal bazaizu
9. Aitari eskatzen, emango dizu.
• badiozu • baduzu • badigu • badu
10. Nekatuta, medikuarengana joan beharko du.
• banago • bazatoz • badoaz • badabil

3. EUSKARATU, indikatiboko baldintza erabiliz.

1. Si tienes dinero, vivirás bien.
2. Si quieres paz, quédate en casa.
3. Si le quieres, dile la verdad.
4. Si vas rápido, llegarás a tiempo.
5. Si lo haces tú todo, ¿qué vamos a hacer nosotros?
6. Si has terminado, vete a pasear.
7. Si ves la película, te gustará.
8. Si te lo he dicho, ha sido por tu bien.
9. Si nos ves en la calle, no pases sin saludar.
10. Si te pasa algo, llama a algún amigo.



III. FUNTZIO-ESALDIAK

Elkar agurtzeko erabiltzen ditugun formulak eta esapideak ikasiko ditugu lehen ikasgai honetan. Hasierako agurrak ikusiko ditugu aurrena, hau da, norbaitekin topo egitean edo hizketan hastean esaten ditugun agurrak eta erantzunak. Ondoren, amaierako agurrak ikusiko ditugu, despedidan esaten direnak.

Maila eta egoera diferenteetan agur-formula diferenteak erabiltzen direla gogoratuko dugu, azkenik.

(Se estudian en esta primera lección las fórmulas y expresiones de saludo y despedida más habituales, teniendo en cuenta los diversos niveles y situaciones posibles)

HASIERAKO ETA AMAIERAKO AGURRAK

1. HASIERAKO AGURRAK ETA ERANTZUNAK

AGURRAK	ERANTZUNAK
<i>Epa, Miren!</i>	<i>Epa!</i>
<i>Kaixo, Koldo!</i>	<i>Kaixo!</i>
<i>Kaixo, aspaldiko!</i>	
<i>Agur! (lp.)</i>	
<i>Egun on!</i>	<i>Baita zuri ere!</i>
<i>Eguerdi on!</i>	<i>Berdin!</i>
<i>Arratsalde on!</i>	<i>Hala ekarri! (B)</i>
<i>Gabon!</i>	
<i>Zer dugu?</i>	<i>Hementxe.</i>
<i>Zer, paseoan/lanean...?</i>	<i>Bai...</i>
<i>Zer, erosketak egiten?</i>	
<i>Zer moduz?</i>	<i>Ondo, eskerrik asko!</i>
<i>Zer, ondo?</i>	<i>Primeran.</i>
	<i>Hainbestean.</i>
	<i>Beti bezala.</i>
	<i>Betiko moduan.</i>
	<i>Tira...</i>
<i>Etxean denak ondo?</i>	<i>Ondo esan beharko.</i>
	<i>Erdipurdi.</i>
	<i>Ez hain ondo.</i>
<i>Hemengo aldi?</i>	<i>Hola-hola.</i>
<i>Nolaz zu hemen?</i>	<i>Eta zu?</i>
<i>Zer diozu?</i>	

AGURRAK

ERANTZUNAK

Aizu!**Bai?****Zu!****Zer?****Barkatu!****Zer nahi duzu?****Mesedez!****Zer da?****Errazu! (Ip)****Zer gertatzen da?****Egun on, lagunok!****Egun on, jaun-andreak!****Egun on denoi!****Arratsalde on etorri zareten guztioi!****Gabon entzule zareten guztioi!****Ongi etorri!**

Oharra: *Egun on!* agurrari *Berdin!* edo *Igualmente!* erantzuten diote batzuek. Egokiago da, hala ere, *Baita zuri ere!* edo *Baita zuei ere!* erantzutea.

2. AZKEN AGURRAK

Agur!**Adio!****Gero/hurrengo/beste bat/ikusi/bihar... arte!****Nahi duzun arte!****Ondo (ongi) ibili/izan/segí/joan/pasa/bizi...!****Bueno, banoa.****Deitu noizean behin.****Deituko dizut.**

3. MAILAK ETA EGOERAK

Gogoan izan behar duzu, noski, goiko formula eta esaldi horiek kontestu eta egoera jakinetan erabiltzen direla, batzuk maila batean eta besteak beste maila batzuetan. Horrela, esate baterako:

- lagunartean:

Kaixo!**Epa!**

- maila formalean:

Egunon, jaun-andreak!

- eguneroko agurrak:

Egun / arrasti / arratsalde ... on!**Zer, paseoan / lanean...?****Nolaz zu hemen?****Agur!****Gero arte!****Ikusi arte!**

- noiz behinkakoak:
(ocasionales)

Zer moduz?**Ondo, eta zu?****Zer moduz etxean?****Etxeakoak ondo?****Agur, hurrena arte!****Ondo segi /ibili...!**

ARIKETAK

I.- Agur-formula bana falta duten bost testu dituzu ondoren.

a. Hona falta diren esaldiak. Ipin zein testuri dagokion bakoitza (A, B, C, D ala E):

- Zer dugu? ()
- Ondo esan beharko ()
- Baita zuei ere ()
- Ondo da ()
- Ongi etorri ()

b. Mota diferenteetakoak dira testu horiek. Ipin zein motari dagokion testu bakoitza (A, B, C, D ala E):

- Aspaldian ikusi gabeena ()
- Familiakoen artekoa ()
- Lagunen artekoa ()
- Formala ()
- Irratikoa ()

A.

—Egun on!

—..... . Zer nahi zenukete?

—Iragarkia irakurri dugu egunkarian eta...

—Hortaz, lanpostu berria eskatzera zatozte zuek ere.

—Bai, hala gatoz.

—Hemen duzue eskabide-orri bana. Bete eta ekarri izenpetuta.

—Jende asko etorri al da?

—Bai, begira, hor dauden orri horiek guztiak horretarako dira.

—Esperantza gutxi, orduan... Bueno, agur eta eskerrik asko.

—Ez horregatik, agur.

B.

—Hara, Lurdes, aspaldiko! Zer moduz zaude?

—..... . Eta zu?

—Beti bezala.

—Itxura ona duzu.

—Mila esker. Ez nago gaizki, ez. Lana badut, osasuna ere bai. Zer gehiago behar da?

—Eta zer moduz ama?

—Hainbestean hura. Orain hobeto dago, baina negua erdipurdi pasatu du. Badakizu, urteak ere baditu eta...

—Eskumuinak eman eta nahi duenean etortzeko gurera, kafe bana hartuko dugula, kontu kontari.

- Esango diot... Bueno, banoa, agur.
 —Agur bai, ondo izan eta hurrena arte.

C.

"Gabon entzule zareten guztioi! Gaueko hamaikak dira eta ordu honetan, os-tiralero bezala MUSIKAN BLAI saioa entzuteko aukera izango duzue gurekin jarrai-tu nahi duzuen guztiok.

Hasteko, asteburu honetan gure herrietan izango diren musika emanaldien berri emango dizuegu. Eta gero —hau bai zuen gustukoa izango dela!— SORO-TAN BELE taldea izango dugu gurekin ordubeteko programa honetan. Gabon, be-raz, eta guztiak MUSIKAN BLAI programara, zuen programa gaztera."

D.

- Kaixo, , osaba?
 —Hementxe!
 —Erosketak egiten?
 —Bai, hala nabil.
 —Eta izeba? Nolaz ez da etorri? Ez da gaixorik egongo...
 —Ez, ez, primeran dago. Bestela etorri naiz ni, goiz pasa.
 —Ederki. Eta zer berri etxean?
 —Zaharrak berri han ere.
 —Ondo izango dira Fermin, Mertxe eta...
 —Bai, ondo dira denak.
 —Bueno, osaba, martxa dut. Goraintziak denoi eta segi ondo.
 —Agur bai, eta segi ondo zu ere.

E.

- Egun on, Koldo.
 —Baita zuri ere.
 —Goiz zabortza gaur!
 —Bai, ateri dago eta aprobetxatu egin behar da.
 —Arrazoi duzu. Zurekin joango naiz, inporta ez bazaizu.
 —Ez, noski. Nora joango gara? Kai aldera?
 —..... . Atzo irten al zinen?
 —Bai. Zalantzan egon nintzen, baina irten egin nintzen azkenean. Badakizu, ni ez naiz etxean egotekoa.
 —Ni etxean geratu nintzen, bada. Izan ere, eguraldi hura... Izugarri aspertu nintzen, telebista aurrean egun osoan.
 —Tira, goazen, gaur eguraldi ederra dugu eta.
 —Goazen, bai.

II.- Ariketa honetan, ezker aldeko galderak eta eskuineko erantzunak nahastuak daude. Lotu itzazu behar den bezala (lehen a egina dago, adibide bezala):

1. Ondo al da ama? (5) Hemen naiz, bai.
2. Egun on! () Bai, zure partetik.
3. Hara, Mikel, zer zabilta? () Ondo, eta zu?
4. Nolaz zuek hemendik? () Bai, ondo segi zu ere.
5. Hemen zara? () Baita zuri ere.
6. Goraintziak lagunei. () Bai, primeran dago.
7. Zer berri etxean? () Agur bai, hurrena arte.
8. Zer moduz, Iñaki? () Hementxe, paseoan.
9. Ondo izan! () Zaharrak berri.
10. Agur, osaba. () Zuek ikustera etorriak.

III.- Ezker aldeko agur-formulak eta eskuineko azalpenak nahastuak daude. Lotu behar den bezala (lehen a egina dago, adibide bezala):

1. Egun on! (6) Etorrerako agurra da.
2. Kaixo, jaun-andreak! () Egokiago da Ondo, eta zu? erantzutea
3. Baita zuri ere! () Norbait ustegabeko tokian ikustean.
4. Ondo! () Goizean esaten den agurra da.
5. Erdipurdi. () Nahasketa: lagunartekoa eta formala.
6. Ongi etorri! () Despedidako agurra da.
7. Nolaz zu hemendik? () Egun on! eta horrelakoei erantzuteko
8. Kaixo, Miren. () Lagunarteko agur arrunta da.
9. Ondo ibili! () Oso ondo dagoenak erantzuten duena.
10. Bai, primeran. () Oso ondo ez dabilenaren erantzuna.

IV.- Eman itzazu ondoko formulen antzeko beste batzuk.

- a. Ondo izan: *ondo segi*, , , ,
- b. Hurrena arte: *ikus arte*, , , ,
- c. Primeran: *erdipurdi*, , , ,

V.- Bete itzazu ondoko testuetan dauden hutsuneak —bakoitzean hitz bat falta da:

A.

- Hara, Felix, zer horren goiz?
- aldera noa, ea bainu bat hartzen dudan.
- Oso ondo, eguraldi ederra dago gaur.
- Bai, igerian egiteko primerakoa.
- Bueno, ongi bada!
- Bai, saiatuko naiz. Agur!

B.

- Hara, Miren, zu ere
- Bai, ni ere etorri naiz.
- Animatu zara.
- Bai, badakizu musika asko gustatzen zaidala.
- Gaurko kantaldia bikaina izango da.
- Hala espero dut.
- Bueno, bada, ondo segi eta arte.
- Bai, agur.

C.

- Aspaldiko! Zer
- Oso ondo ez, egia esan.
- Zer, bada?
- Ospitaletik irten berria naiz.
- Hara, zer izan duzu?
- Begietan ebakuntza egin didate.
- A bai? Eta zer moduz zaude orain?
- Orain nago, Jainkoari eskerrak.
- Pozten naiz.

D.

"Eguerdi, entzule guztiok, ongi eguerdiko albistegira. Gaur ere, eguerdiro bezala, eguneko albisteak joratu aurretik eguraldiaren berri emango dizuegu. Zoritxarrez, ez dugu berri onik. Azken egunotako eguraldi zikin eta urretsua izango dugu gaur ere. Beraz, ez atera kalera euritakorik gabe..."

